

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

93/2020 Foru Agindua, maiatzaren 4koa, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuarena, zeinaren bidez Zuiako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren ingurumen adierazpen estrategikoa ematen baita

“Zuiako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntuala” izapidetzean ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar da; hauek arautzen dute prozedura hori: Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.

Prozedura horren eremuan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua eman zuen, arestian aipatu dugun Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legearen 19. artikulua xedatzen duenari jarraiki. Dokumentua eman baino lehen, kontsulta egin zitzaion eraginpeko herri administrazioei eta pertsona interesdunei, eta jasotako erantzunak bildu eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismeneko dokumentu horretan txertatu ziren. Geroago, Zuiako Udalari igorri zitzaion dokumentua.

Zuiako Udalak Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egiteko eskatu dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari. Eskaera horrekin batera, agiri hauek jaso genituen:

- Jendaurreko informazioaren eta kontsulten emaitza.
- Arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren hasierako onespeneren hirigintza agiria.
- Arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren hirigintza agiria, jendaurreko eta kontsulta izapideetan jasotako alegazioak kontuak hartu ondoren egindako aldaketak barne.
- Ingurumen Azterketa Estrategikoa (IAE).

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eskariz, Ingurumen Adierazpen Estrategiko hau ematen du, 21/2013 Legearen 25. artikulua ezarritakoari men eginez, formari nahiz edukiari dagokienez.

Ingurumen Adierazpen Estrategiko honetan jasotzen diren zehaztapenak, 21/2013 Legearen 26. artikuluan adierazten denez, “Zuiako (Araba) arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren” behin betiko onspena jasotzeko aurkeztu den hirigintza agirian sartu beharko dira.


Ebazpen honen oinarri den ingurumen adierazpen estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman zuen 2020ko apirilaren 23an (15/257 espedientea).

1. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aldaketa puntualaren ezaugarriak. Aztertutako aukerak

1.1. Ebaluatuko den eremu geografikoa:

Zuiako udalerrriak 123,3 km²-ko hedadura du eta Gorbeialdeko Kuadrillako zabalena da Gorbeialdean, Gorbeialdeko hegoaldeko isurialdetik Badaia mendilerroa hedatzen den haran eremu bat hartuta. Iparraldeko muga Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoen arteko muga da. Hainbat herri osatzen dute, eta Murgia nabarmentzen da, udalerriko hiriburua baita. Hauek dira beste herriguneak: Altube, Ametzaga, Aperregi, Aretxaga, Bitoriano, Domaikia, Gillerna, Jugu, Lukiano, Markina, Sarria, Zarate eta Ziorraga. Lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea

hainbat kategoriatan banatuta dago. Aldatu beharreko kategoria Z8 izenekoa da, Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko zona; horren definizioa batez ere nekazaritza erabilera babesteko eremuetan oinarritzen da, horiek baitira gaitasun agrológico handieneko lurzorua edo ustiapen moderno, errentagarri eta jasangarriko eremuak ingurune naturalarekin.



Zuiako 3. aldaketa puntualaren eremua: Z8. Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko zona

1.2. Aldaketa puntualaren ezaugarriak:

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 3. aldaketa puntualaren helburua da "lurzoru urbanizaezinean baimendutako erabilera eta jarduerekin lotutako zenbait pasarteren idazketa hobetzea (Z-8 zonak), eta akats batzuk zuzentzea, bai eta araudia ezartzea ere, gaur egun jasota ez dauden alderdi batzuekin, esate baterako, abeltzaintzako ustiategi bati lotutako etxebizitza bat eraikitzeo aukera ematea, besteak beste.

1.3. Aztertutako aukerak:

Proposaturiko aukerei dagokienez, bidalitako IAEn aukeren azterketa egin da. Guztira 2 aukera daude, 0 aukera barne (esku ez hartzea, alegia).

- 0 aukera (ez da hautatu): "Ez esku hartzea"

IAEn adierazten denaren arabera, "0 aukera egungo hirigintza egoerari eustean datza. Egoera hori ez dator bat irailaren 22ko 515/2009 Dekretuarekin, abeltzaintzako ustiategietako higiene eta osasun arau teknikoak eta ingurumenekoak eta Z-8 zonetan nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerarekin lotutako etxebizitzak ezartzeko ezintasuna ezartzen dituen. Alternatiba horrek ez du aukerarik ematen udalerraren eta bertako biztanleen beharrei erantzuteko, hau da, nekazaritza eta abeltzaintza instalazio bat garatzeko aukera bermatzea. Bestalde, aukera horretatik ere ez da ondorioztatzen abantaila aipagarri ingurumenaren ikuspegitik"

- Hautatutako aukera: "Aldaketa proposamena"

Udalerriko abeltzaintza jarduera bultzatu ahal izateko, nahitaezkoa da indarrean dagoen araudia egokitzea gaur egun dauden eta etorkizunean egon daitezkeen instalazioei, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan oinarrituta.

Bestalde, egungo araudia ezarri nahi da, erabilera berriak ezartzeko aukerarekin.

Horien artean, lurzoru urbanizaezinean (Z-8 zonak) etxebizitza bat egiteko aukera dago, baldin eta abeltzaintzako ustiategi bati, zaldi hezitegi bati edo txakurtzaindegi bati lotuta badago.

Era berean, nahi da hirigintza plangintzak baimena eman ahal izatea erabilera publikoko eta interes sozialeko eraikin edo instalazio bat eraikitzeko Z-8 nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko zona gisa kalifikatutako lurzorian; izan ere, beste lurzoru batzuetan, esaterako, Z-4 azaleko uren babeserako zonan, jada baimentzen da.

Aurreko paragrafoetan azaldutako alderdi guztietatik sortu da arau subsidiarioen aldaketa puntual hau idazteko arrazoia, hain zuzen, aldaketa hauetan datzana:

139. artikulua (lurzoru urbanizaezinean baimendutako erabilerak eta jarduerak)

– Z-8 zonan - Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko babes zona:

- Komunitate ekipamenduak eta nekazaritzako artisau industria instalatzeko baimena ematea.

- 139.3 artikuluan jasotako jardueren instalazioa lurzoru mota horretan soilik mugatzea; izan ere, egungo idazketaren arabera, edozein lurzoru urbanizaezinetan instalatu litezke.

- Abereak dituzten instalazioei baimena ematea ustiategiari lotutako etxebizitza bat izan dezaten "nekazaritza eta abeltzaintza" zona horietan, abeltzaintza instalazioak izan zein beste batzuk izan, hala nola zaldi hezitegiak edo txakurrentzako zentroak. Bete beharreko baldintzak Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritakoak izango dira.

- Aldez aurretik adierazpen hori lortu duten onura publikoko eta interes sozialeko eraikinak, instalazioak edo azpiegiturak kokatzeko baimena ematea.

Artikuluaren 4. puntuan, abeltzaintzako ustiategitzat jotzen ez diren jardueri buruzko idazketa zehaztu edo hobetzea (artikulu bereko 3. puntua), bai eta lurzoru urbanizaezinean instalatzeko aukera ere; izan ere, gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioetan agertzen den idazketarekin nahasmena sortzeaz gain, 66.2 artikuluari aipamen oker bat egiten baitzaio, berariazkoa ez den antolamenduz kanpoko eraikinei buruzkoari, ilogikotzat jotzen ez dena. Puntu horretan argitu behar da komunitate ekipamenduan baserri-eskola, albaitaritza klinika, eta abarreko motako ustiapen erabilerak sartutzat jotzen direla, pribatuak zein publikoak izan.

141. artikulua (Eraikuntzako erabilerei eta jardueri eska dakizkiekeen beste baldintza batzuk)

Alde batetik, gorozki likidoak dituzten nekazaritzako ureztatzeekin mantendu beharreko distantzietan dagokienez, 515/2009 Dekretuan ezarritakora mugatuko dira. Nekazaritzako Lan Unitateak (NLU) zehazteko, 2015eko martxoaren 31ko Aginduari heldu behar zaio.

Bestalde, e) apartatu berria ezartzen da 2. puntuan, eta bertan abeltzaintzako ustiategi bati lotutako etxebizitzetarako hirigintza parametroak eta ezarpen baldintzak jasoko dira, orain arte ez baitziren existitzen, indarreko arauetan ez zelako aukera hori jasotzen.

2. Ebaluazio prozesuaren analisia

2.1. Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ebaluazioa: kalitatea eta ondorioak.

IAEren edukia aztertuta, ingurumen organo honen iritziz, orokorrean eta egituraren arloan, dokumentuak kalitate egokia dauka Zuiako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren ingurumen ebaluazio estrategikoa gauzatzeko. Eraginpeko eremuaren ingurumen analisi, diagnostiko eta balorazio berbera egin da, baita eraginen identifikazioa eta balorazioa eta ingurumen integrazioarako neurrien proposamena ere, eta planaren ondorioak berrikusteko programa bat jasotzen da. Nolanahi ere, aurreragoko ataletan, arreta bereziz eta banaka aztertu behar diren alderdiak eta/edo gaiak jorratuko dira, zenbait kasutan, berrikusi beharko lirartekeenak.

3. Irismeneko dokumentuan eta egindako kontsulten emaitzetan ezarritako eskakizunak kontuan izatea

3.1. Irismeneko dokumentuan ezarritako eskakizunak.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak emandako Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismeneko dokumentuan, zenbait eremu definitzen ziren, non jarduerak han ezarri gero, ingurumen arazoak ekarri edo ondorio onartezinak izan zitzaizketen, eta berrikusi beharreko zenbait alderdi ere nabarmentzen ziren.

Azterketarekin hasi aurretik, adierazi behar da planteatutako aldaketa batzuek berez ez diotela natura inguruneari zuzenean eta berehalako kalterik eragiten, eraikuntza erabilerek –Z-8 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko zonan aldatzen dira horien erregulazioa–, berriz, eragin diezaiekete kategoriatan sartzen diren natura ingurune elementuei edo eremuei.

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, PLANAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENeko DOKUMENTUARI JARRAIKI	PLANEAN ESKAKIZUN GISA SARTZEKO EREMU ARAZOTSUEN BERARIAZKO BALDINTZAK
Babestutako naturaguneak	
<p>(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Egiaztatu da gainjartzeak daudela Z-8 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko zonen eta Naturagune Babestuen artean (Natura 2000 Guneak eta Gorbeia Parke Naturala). Gainjartze horiek lan egiten den eskalaren ondoriozko akatsak badira, gomendatzen da Z-8 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko zonen kategoriatan behar bezala birmugatzeko. Bestela, eremu horretan parke naturalaren barruan abeltzaintzako eraikin berririk ez baimentzeko mugari jarraitzea planteatu beharko litzatekeela uste da, edo, halakorik ezean, erabilera hori mugatuko duten ingurumen baldintza espezifikoak ezartzea. Nolanahi ere, eremu horretan Naturagune Babestuaren eta Natura 2000 Sarearen berezko ingurumen araudia bete beharko da, eta HAPOn araudian adierazi beharko da, halaber, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.4 artikulua araberan, Natura 2000 Gune batean eragin nabarmenak sor ditzakeen edozein jarduketek ebaluazio egokia behar duela."</p>	<p>Aintzat hartu dira oharpenak. Zehazki, atal hauetan: — IAEren "9.1 Nekazaritza eta abeltzaintza instalazioen eragiketa aurreko faseko neurri babesle eta zuzentzaileak eta egungo hirigintza araudiaren baldintzak" epigrafea (78. or.). — Hirigintza agiriaren "Arauen 3. aldaketa puntualaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (16. or.). Aurrekoa gorabehera, baldintza hori berariaz jaso beharko da arau-artikuluetan. Hau da, 139. artikuluan (lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilera eta jarduerak) eta/edo erabileren eta jardueren antolamendurekin lotutako hurrengo artikuluetan.</p>
Batasunaren intereseko edota lehentasunezko katalogatutako habitat naturalak	
<p>(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "HAPOn araudiak, era berean, adierazi beharko du Z-8 Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabaleko zonan baimendu daitezkeen abeltzaintzako jardueren berezko eraikinak eraikitzeak kokalekuen hautaketa zehatza egingo dela landaredia naturaleko zonei eta Europar Batasunaren Intereseko eta lehentasunezko katalogatutako habitat naturalei eragin gabe."</p>	<p>Aintzat hartu dira oharpenak. Zehazki, atal hauetan: — IAEren "9.1 Nekazaritza eta abeltzaintza instalazioen eragiketa aurreko faseko neurri babesle eta zuzentzaileak eta egungo hirigintza araudiaren baldintzak" epigrafea (78. or.). — Hirigintza agiriaren "Arauen 3. aldaketa puntualaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (16. or.). Aurrekoa gorabehera, baldintza hori berariaz jaso beharko da arau-artikuluetan. Hau da, 139. artikuluan (lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilera eta jarduerak) eta/edo erabileren eta jardueren antolamendurekin lotutako hurrengo artikuluetan.</p>
Paisaia bereziak edo bikainak	
<p>(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Bereziaren eta/edo Bikainen Katalogoaren arabera 'Paisaia Berezi edo Bikain' gisa katalogatutako eremu batean eragiten denean, planaren araudian ezarri beharko da nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntza erabileraren baimenak eskatu beharko duela aldez aurretik paisaia katalogatuaren eremuaren gaineko eraginari buruzko txosten tekniko bat egiteko, paisaia babesteko eta zuzentzeko neurri egokiak ezarriko dituen."</p>	<p>Aintzat hartu dira oharpenak. Zehazki, atal hauetan: — IAEren "9.1 Nekazaritza eta abeltzaintza instalazioen eragiketa aurreko faseko neurri babesle eta zuzentzaileak eta egungo hirigintza araudiaren baldintzak" epigrafea (78. or.). — Hirigintza agiriaren "Arauen 3. aldaketa puntualaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (16-17. or.). Aurrekoa gorabehera, baldintza hori berariaz jaso beharko da arau-artikuluetan. Hau da, 139. artikuluan (lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilera eta jarduerak) eta/edo erabileren eta jardueren antolamendurekin lotutako hurrengo artikuluetan.</p>

Konektibitate ekologikoa	
(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Lotura ekologikoari eta eremu eragingarrian dauden paisaiei dagokienez, IAEk aldaketa puntualak eragin ditzakeen ondorioen azterketan sakondu behar du. Ildo horretan, hirigintza dokumentazioan sartzea komeni den prebentzio neurri guztiak proposatuko dira, eremu horien gaineko inpaktuak onartezinak ez direla bermatzeko. Bereziki, beharrezkotzat jotzen da HAPÖren araudiak baldintza hau jasotzea: "Korridore ekologikoko" eremuetan eraikuntza erabilerak baimentzeko, txosten tekniko bat eskatu beharko da, iragazkortasun eta konektibitate ekologikoaren gaineko inpaktuak definitzeko eta kasua kasuko neurri babesle eta/edo zuzentzaileak ezartzeko."	Aintzat hartu dira oharpenak. Zehazki, atal hauetan: — IAEren "9.1 Nekazaritza eta abeltzaintza instalazioen eragiketa aurreko faseko neurri babesle eta zuzentzaileak eta egungo hirigintza araudiaren baldintzak" epigrafea (79. or.). — Hirigintza agiriaren "Arauen 3. aldaketa puntualaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (pág.17. or.). Aurrekoa gorabehera, baldintza hori berariaz jaso beharko da arau-artikuluetan. Hau da, 139. artikuluan (lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilerak eta jarduerak) eta/edo erabileren eta jardueren antolamenduarekin lotutako hurrengo artikuluetan.
Katalogatutako flora espezieak	
(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "IAEk sakondu beharko luke aldatu beharreko Z-8 Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko zonaren kategorian dauden katalogatutako flora espezieen azterketan eta ezagutzan. Ildo horretan, egokituz jotzen da prebentzio neurriak planteatzea, eta neurri horiek hirigintza araudian sartzea, abeltzaintza erabilerarekin lotutako eraikuntza berriak garatzeko baldintzatzaile gisa. Ingurumena babesteko eta zuzentzeko neurri horien artean, kontuan hartu beharko da, eskura dagoen ingurumen kartografiaren arabera, eraikuntza jarduketak bat flora katalogatua egon daitekeen eremu batean planteatu ahal bada, aldeaz aurretik eremuaz zertu beharko dela eta flora horren gaineko eraginak minimizatzeko neurriak ezarri beharko direla". Alderdi hori honako kode hauekin katalogatutako intereseko habitatatara ere zabaldu zen: 4030, 4090, 6210*, 6510, 91E0*, 9160 eta 9340.	Aintzat hartu dira oharpenak. Zehazki, atal hauetan: — IAEren "9.1 Nekazaritza eta abeltzaintza instalazioen eragiketa aurreko faseko neurri babesle eta zuzentzaileak eta egungo hirigintza araudiaren baldintzak" epigrafea (79. or.). — Hirigintza agiriaren "Arauen 3. aldaketa puntualaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (pág.17. or.). Aurrekoa gorabehera, baldintza hori berariaz jaso beharko da arau-artikuluetan. Hau da, 139. artikuluan (lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilerak eta jarduerak) eta/edo erabileren eta jardueren antolamenduarekin lotutako hurrengo artikuluetan.
Katalogatutako fauna espezieak	
(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Eragin eremuan katalogatutako fauna espezieen presentziari dagokienez, IAEk prebentzio neurriak definitu beharko ditu, eta neurri horiek hirigintza araudian sartu beharko dira, abeltzaintza erabilerarekin lotutako eraikuntza berriak garatzeko baldintzatzaile gisa. Era berean, hirigintza dokumentuan aldatutako eremuan dauden fauna espezie babestuen Kudeaketa Planen aipamena sartu beharko da. Funtsezkoa izango da HAPÖren araudiak gutxieneko atzerapen nahikoa ezartzea abeltzaintzako eraikinei, arriskuan dauden espezieentzako Interes Bereziko Eremuak diren ibaiertzei eta errekei dagokienez, bai eta natura intereseko baso eremuei dagokienez ere."	Aintzat hartu dira oharpenak. Zehazki, atal hauetan: — IAEren "9.1 Nekazaritza eta abeltzaintza instalazioen eragiketa aurreko faseko neurri babesle eta zuzentzaileak eta egungo hirigintza araudiaren baldintzak" epigrafea (79-80. orr.). — Hirigintza agiriaren "Arauen 3. aldaketa puntualaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (17-18. orr.). Aurrekoa gorabehera, baldintza hori berariaz jaso beharko da arau-artikuluetan. Hau da, 139. artikuluan (lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilerak eta jarduerak) eta/edo erabileren eta jardueren antolamenduarekin lotutako hurrengo artikuluetan.
Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeak	
(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauak ezarritako arauketaren eta antolamenduaren mendeko eremuak baitira, beharrezkoa da IAEren, ondoren hirigintzako dokumentuan sartzeko, beharrezkoak diren prebentzio eta babes neurri guztiak planteatzea, eremu horietan eraikuntza erabileren aurrean eragin itzulezina saihesteko. Horri dagokionez, araudian jaso beharko da 1/2012 Foru Araua bete beharra dagoela."	Aintzat hartu dira oharpenak. Zehazki, atal hauetan: — IAEren "9.1 Nekazaritza eta abeltzaintza instalazioen eragiketa aurreko faseko neurri babesle eta zuzentzaileak eta egungo hirigintza araudiaren baldintzak" epigrafea (80. or.). — Hirigintza agiriaren "Arauen 3. aldaketa puntualaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (18. or.). Hala ere, eta kontuan hartuta Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialak hasierako onespeneraren ebazpena duela, aztertu beharko da ezen, aipatutako LPS horretan jasotako ibilbideren bati eragiten bazaio, ingurumen integrazioako neurri egokiak ezarri beharko direla eta Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauan jasotako zehaztapenak bete. Baldintza hori berariaz jaso beharko da arau-artikuluetan. Hau da, 139. artikuluan (lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilerak eta jarduerak) eta/edo erabileren eta jardueren antolamenduarekin lotutako hurrengo artikuluetan.
Kontsulta faseko alegazioak	
(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren kontsulta fasean jasotako alegazioak hartuko dira kontuan, eta alegazio horietan egindako gogoetak onartzen ez badira, horri buruzko erantzun justifikatua emango da."	Egokituz jo dira bai IAEren bai hirigintzako dokumentuaren beraren zenbait ataletako alegazio txostenetan jasotako gogoetak.

Adierazle kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak	
(Irismeneko dokumentuaren hitzez hitzeko kopia): "Adierazle gisa honako hauek sartuko dira IAEren inpaktuak baloratzeko: — Aldaketa puntualaren eremuaren azalera, Natura 2000 Espazioekin bat datorrena. — Aldaketa puntualaren eremuaren azalera, 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera Batasunaren Intereseko Habitategin bat datorrena. — Aldaketa puntualaren eremuaren azalera (25 metroko buffer bat kontuan hartuta) "Galzorian" katalogatutako espezieen Interes Bereziko eremuekin mugan. — Aldaketa puntualaren ondoriozko ingurumen inpaktu nabarmenak saihesteko planteatutako prebentzio neurrien kopurua (aldaketaren eremuan dauden ingurumen balio bakoitzeko)".	Ez da behar bezala balioetsi irismen dokumentuan IAEren inpaktuak balioesteko adierazten ziren adierazle proposamena. Aurrekoa gorabehera, eta IAEren eraginean balorazioak Natura 2000 Guneei, Batasunaren intereseko habitatei eta dagozkien kudeaketa planak dituzten fauna espezieei buruzko analisi maila nahikorik ez badu ere, egokitza eta nahikotzat jotzen da IAEk (eta, ondorioz, hirigintzako dokumentuak berak) jasotzen dituen prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurrien multzoa. Ondoriozta daiteke, beraz, ingurumen integratzioko neurriak ezartzerakoan, IAEren inpaktuen balorazioaren gabeziak batez ere irismeneko dokumentuan ezarritako jarraibideekin konpentsatu direla, ingurumenaren aldetik sentiberak diren eta kontuan hartu beharreko elementu eta eremuei dagokienez.

3.2. Egindako kontsulten emaitzak.

Lehenik eta behin, IAEren irismeneko dokumentua prestatzeko egindako kontsulta faseari dagokionez, agiri horretan aztertzen ziren fase horretan jasotako alegazioak eta, era berean, horien berri ematen zitzairen planaren sustatzaileari. Administrazio desberdinetako alegazioak jaso ziren:

- URA - Uraren Euskal Agentzia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
- IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak prestatutako IAEren irismeneko dokumentuan laburtu ziren alegazio horiek.

Bigarrenik, arloko txostenak bildu eta IAE eta plana jendaurreko informazioaren pean jartzen diren faseari dagokionez, sustatzaileak diotenaren arabera jaso diren alegazioen laburpena jasotzen da ondoren. Plana idatzi duen taldeak banaka aztertu eta ebatzi ditu haiek, kasu garrantzitsuenetan aldaketa batzuk onetsiz eta planean bertan sartuz:

- IHOBE sozietate publikoak adierazi du ondo hartu dela kontuan historikoki kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzatiak daudela, hain zuzen, lurzorua kutsatu ahal izan duten jarduera edo instalazioak izan dituzten edo gaur egun dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan sartuak. Bestalde, adierazten da 01063-00016 kodea duen lurzati dagoela, eragina jasan dezakeena eta dekretua eguneratzeko zirriborroan sartu dena ARPISA (CSC-40/15-IB) espeditetik abiatuta, eta orain sartzeko eskatzen duela.

Zuiako Udalak hirigintza dokumentuan jaso du IHOBEk adierazitako kokaleku berria [hirigintza dokumentuaren "Arauen 3. aldaketaren IAEtik eratorritako ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko "Kutsatutako lurzoruei buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena" atala (21. or.)].

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak hainbat gai alegatu ditu Natura 2000 Sareari, Hezeguneeen ALPea sartutako Altubeko urmaelari (B4A1 kodea), landarediari eta habitatei, eta arriskuan dauden flora eta fauna espezieei dagokienez, eta horiei guztiei buruz ondorioztatu du IAEk neurri egokiak proposatzen dituela, baina ez direla sartu aldatzeko proposatzen den hirigintza plangintzan; hortaz, horiek sartu beharra dago kasu guztietan.

Zuiako Udalak hirigintza dokumentuan oharpen horiek jaso ditu [hirigintza dokumentuaren "Arauen 3. aldaketaren IAEtik eratorritako ingurumen baldintzatzaileak" epigrafeko

“Ingurumenari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena” atala (17. orrialdetik aurrera)].

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak esan du aldaketa puntualak ez duela eraginik katalogatutako elementuetan eta, beraz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspegitik ez duela eraginik.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak adierazi du proposatutako aldaketak positiboki baloratu direla, baina Z-8 Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko zona barruan “Balio Estrategiko Handia” eta “Trantsizioko Landa Paisaia” azpikategoriak bereizteko eskatu du, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera. Bereizketa hori dokumentu grafikoan edo planoetan oinarritu behar da, aldaketaren testuan islatu ahal izateko.

Zuiako Udalaren ustez, izapidetzen ari den aldaketa puntualak ez duenez eraginik egungo arauen indarreko dokumentazio grafikoan, eta Zuiako HAPO berria izapidetuko denez, une horretan jaso beharko dira aipatutako azpikategoriak 8. zonaren mugaketaren barruan.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du kultura ondarean ez dela zuzeneko eraginik ikusten proposatzen den aldaketaren ondorioz. Oroigarri gisa jasotzen da etorkizuneko eraikuntza berriek kontuan izan beharko dituztela babesle duten edo babesteko proposamena duten Arkeologia Guneen preskripzioak eta babes araubidea, bai eta ondare historiko-arkitektonikoko elementu kalifikatuak edo inbentariatuak errespetatu ere, eta kontuan hartu babes proposamena duten elementuetarako babes irizpideak.

Zuiako Udalak uste du ez dagoela onartu beharreko gairik, ez baita alegaziorik aurkeztu.

- URA Uraren Euskal Agentziak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak txosten bana egin dute, eta txosten horietan dagoeneko aplikagarriak diren edo dagokion araudi sektorialak eskatzen dituen zenbait oharpen jaso dituzte (EAEko ibaien eta erreken ALPeke atzerapenak errespetatzea; isurketak arazketa sistema orokorretara lotzeko lehentasuna, banako berriak instalatu beharrean; aireko nahiz lurpeko baliabide hidrikoen aprobeixamendua, baimenarekin bakarrik; baimen eskaera Jabari Publiko Hidraulikoan (JPH) edo haren babes eremuetan egin beharreko edozein obratarako; debekatua zuzenean edo zeharka isurtzeko JPHra...).

Zuiako Udalak aldaketa puntualean arlo hidrikoko oharpenak jaso ditu [hirigintza dokumentuaren “Arauen 3. aldaketaren IAetik eratorritako ingurumen baldintzatzaileak” epigrafeko “Jabari publiko hidraulikoko jarduketari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena” atala (21. or.)].

4. Aurreikusitako eragin esanguratsuak eta ingurumen integraziorako neurriak aztertzea

“Zuiako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren” ondorio esanguratsuak IAEko 8. atalean deskribatzen dira (“Eraginen ebaluazioa”). Oro har, erabilitako metodologia egokia izan dela uste da, nahiz eta gabezia batzuk hauteman diren ebaluazioa egiteko orduan, txosten honen aurreko ataletan aurreratu den bezala.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako eraikinen eraikuntzak eta ustiapenen aprobeixamendua inguruneko elementu hauetan izan ditzaketen eraginak kontuan hartu dira:

- Airearen kalitatea.
- Zaratotsa.
- Argi kutsadura.
- Geologia eta geomorfologia.
- Lurzorua.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia.
- Fauna.
- Landare estalkia.
- Paisaia.
- Ingurune sozioekonomikoa.

Jarraian, "Zuiako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualak" "Arauen 3. aldaketaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren ondoriozko ingurumen baldintzatzaileak" epigrafean jasotzen dituen ingurumen integrazioko neurrien atalak aipatuko ditugu:

- Neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena, ingurumenari dagokionez.
- Neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena, etorkizunean jar daitezkeen nekazaritza eta abeltzaintza instalazioetarako.
- Neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena, jabari publiko hidraulikoko jarduketei dagokienez.
- Neurri babesle eta zuzentzaileen proposamena, lurzoru kutsatuei dagokienez.

5. Ingurumen baldintzak

Ingurumen Adierazpen Estrategiko honetan jasotzen diren zehaztapenak, Ingurumen azterketaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26. artikuluan adierazten denez, "Zuiako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualean" sartu beharko dira.

Jarraian adierazten diren baldintzak hirigintza dokumentuaren arau-artikuluetan jaso beharko dira; hau da, 139. artikuluan (Lurzoru urbanizazinean baimendutako erabilerak eta jarduerak) eta erabileren eta jardueren antolamenduarekin lotutako hurrengo artikuluetan. Neurri horiek guztiak edozein eraikuntza erabileratan aplikatu beharreko araudian adieraziko dira, nekazaritzako eta abeltzaintzako eraikinak edo nabeak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako etxebizitzak barne.

1. "Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko Z-8 zonak" eta Gorbeia Parke Naturala eta KBE gainjartzen diren eremuetan, ezingo dira baimendu nekazaritzako eta abeltzaintzako eraikin berriak, ezta haiei lotutako etxebizitzak ere. Eremu horretan betiere bete beharko da Naturagune Babestuaren eta Natura 2000 Sarearen berezko ingurumen araudia; era berean, HAPOren araudian adierazi beharko da Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.4 artikuluen arabera Natura 2000 Gune batean eragin nabarmenak sor ditzakeen edozein jarduketek ebaluazio egokia behar duela. Abeltzaintzako eraikin eta/edo etxebizitza berrien debekua EAEko Hezeguneen ALPeant sartutako "Altubeko urmaela" hartzen dituen eremura ere zabal daiteke.

2. Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko Z-8 zonan baimendu daitezkeen abeltzaintzako jardueren berezko eraikinak eraikitzei kokalekuen hautaketa zehatza egingo da zuhaixka edo zuhaitz landaredia naturaleko zonei eta "Europar Batasunaren Intereseko eta lehentasunezko zat" jotako habitat naturalei eragin gabe. Zona horien mugakide diren eremuetan eraikuntza erabilera berriak planteatu ahal badira, gutxienezko atzerapenak aurreikusi beharko dira, zuhaitz autoktonoaren gaineko zeharkako eraginak nabarmenak ez direla bermatzeko.

3. Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta/edo Bikainen Katalogoaren arabera "Paisaia Berezi edo Bikain" gisa katalogatutako eremu batean eraikuntza erabilera bat planteatzen denean, planaren araudian ezarri beharko da nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntza erabileraren baimenak eskatu beharko duela alde aurretik paisaia katalogatuaren eremuaren gaineko eraginari buruzko txosten tekniko bat egiteko, paisaia babesteko eta zuzentzeko neurri egokiak ezarriko dituenak.

4. "Korridore Ekologikoko" eremuetan eraikuntza erabileren baimenak txosten tekniko bat eskatuko du iragazkortasun eta konektibitate ekologikoaren gaineko inpaktuak definitzeko eta neurri babesle eta/edo zuzentzaileak ezartzeko. Horretarako, erabilera berriek ingurumena lehengoratzeko, lotura ekologikorako eta paisaia integraziorako neurri espezifikoa sartu beharko dituzte.

5. Eraikuntza jarduketa bat flora katalogatua egon daitekeen eremu batean planteatu ahal bada, aldez aurretik eremua azertu beharko da eta flora horren gaineko eraginak minimizatzeko neurriak ezarri. Baldintza hori honako kode hauekin katalogatutako intereseko habitatetara ere zabaltzen da: 4030, 4090, 6210*, 6510, 91E0*, 9160 eta 9340.

6. "Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko zonen" eremuan eraikuntza erabilerak egiteko baimenak eremuan dauden fauna espezie babestuak kudeatzeko planetatik eratorritako baldintzak bete beharko ditu. Bereziki, kasu espezifiko bakoitzerako, kudeaketa planek "Interes Bereziko Eremu" gisa zehaztutako espazioen barruan, obrak ez gauzatzeko garaiak errespetatu beharko dira espezie bakoitzaren ugalketa aldi kritikoetan. Horretarako, eremu horietan eraikuntza erabileren baimena Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak berariazko txostena egin beharko du. Hauek dira aldaketa puntualaren xede den eremuan onartutako eta presente dauden kudeaketa planak dituzten espezieak:

<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	Galzorian	322/2003 Foru Agindua, azaroaren 7koa, 2003ko abenduaren 5eko ALHAO, 142. zk.
<i>Lutra lutra</i>	Igaraba	Galzorian	880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa, 2004ko azaroaren 24ko ALHAO, 136. zk.
<i>Squalius pyrenaicus</i>	Katxoa	Galzorian	339/2007 Foru Agindua, apirilaren 18koa, 2007ko maiatzaren 14ko ALHAO, 58. zk.
<i>Cobitis calderoni</i>	Mazkarra	Galzorian	340/2007 Foru Agindua, apirilaren 18koa, 2007ko maiatzaren 11ko ALHAO, 57. zk.
Hegazti nekrofagoak			229/2015 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, onesten duena Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek batera idatzia.

7. "Nekazaritza eta Abeltzaintzako eta Landazabaleko Zonen" barruan eraikuntza erabilera berriak baimentzeko, Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauaren baldintzak eta zehaztapenak bete beharko dira.

8. Hirigintza dokumentuaren arau-artikuluetan, azken apartatu gisa, Ingurumen Azterketa Estrategikoan definitutako Ingurumena Zaintzeko Programa sartuko da.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Zuiako arau subsidiarioen 3. aldaketa puntualaren" ingurumen adierazpen estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betez, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ingurumen arloko ebazpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen adierazpen estrategikoa hau ALHAOn argitaratzeko.

Gasteiz, 2020ko maiatzaren 4a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA